



**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea**

**HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZA  
GRADUKO IKASKETAK**

**ARAUDI AKADEMIKOA**

2024-2025 ikasturtea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
**Mondragon Unibertsitatea**

**AURKIBIDEA:**

<b>1. SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>2. KONTZEPTUAK</b>	<b>1</b>
<b>3. GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK</b>	<b>2</b>
<b>4. SARBIDE ETA ONARPENA GRADUKO IKASKETETAN</b>	<b>3</b>
<b>5. MATRIKULA</b>	<b>9</b>
<b>6. IKASLEAK BAJA ESKATZEA</b>	<b>10</b>
<b>7. ESKOLA EGUTEGIA</b>	<b>10</b>
<b>8. IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK</b>	<b>19</b>
<b>9. PRACTICUM-AK</b>	<b>19</b>
<b>10. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA</b>	<b>20</b>
<b>11. MATRIKULAREN ORDAINKETA</b>	<b>21</b>
<b>12. IKASKETETARAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK</b>	<b>25</b>
<b>13. ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK</b>	<b>25</b>
1. ERANSKINA. Lanbide Heziketako kredituak aitortzea.	26
2. ERANSKINA. Mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen kalifikazioa.	26
3. Eranskina. Datu pertsonalen babeserako araudia	28
4. Eranskina. Biblioteka zerbitzuko materialak erabiltzeko arautegia	29
	29

## 1. SARRERA

Graduko unibertsitate-ikasketen jarduera akademikoa urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren babespean garatzen ari da, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Mondragon Unibertsitateari homologatu dizkion ikasketa-planen arabera.

HAUR HEZKUNTZA GRADUA, 2010eko ekainaren 10eko Ebazpenak homologatua (2010.06.26 BOE). Ikasketa plangintza 2010.11.04ko BOEn argitaratuta. Ikasketa plangintza 2020.

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA 2010eko ekainaren 10eko Ebazpenak homologatua (2010.06.26 BOE). Ikasketa plangintza 2010.11.04ko BOEn argitaratuta. Ikasketa plangintza 2020

## 2. KONTZEPTUAK

### UNIBERTSITATE-IKASKETA OFIZIALEN EGITURA

Abenduaren 21eko Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoko 37. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak eraldaturik) xedatu eta 1393/1997 Errege Dekretuak garatutakoaren arabera, unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru ziklotan egituratzen dira, hots: GRADUA, MASTERRA eta DOKTORETZA.

GRADUA: unibertsitate-ikasketen oinarrizko zikloa da hau eta bere helburua da ikaslea jarduera profesionalean aritzeko prestakuntza orokorraz janztea. Graduko tituluak 180-240 ECTS kredituk osatzen dituzte, hiru edo lau ikasturte akademikotan banaturik, eta bertan bilduko da ikasleak jaso beharreko prestakuntza teoriko eta praktikoa: ezagutza adarreko oinarrizko alderdiak, modulu derrigorrezko eta hautazkoak, mintegiak, kanpo-praktikak, gradu bukaerako lana edota bestelako prestakuntza-jarduerak.

Gradurako Egokitze kurtsoak: Kurtso honen helburua Goi Mailako Espazio Europarrera (EESS) egokitzea da. Honela Irakasle Ikasketetako Diplomatuari Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza Gradua lortzeko aukera eskaintzen zaie.

MASTERRA: masterreko ikasketen helburua da ikasleak espezializazio edo ikerkuntzarako prestakuntza aurreratua hartzea. Gutxienez 60 ECTS kredituk osatzen dituzte.

**DOKTORETZA:** doktoretzako ikasketen helburua ikaslea ikerkuntza-teknika aurreratuetan janztea da; ziklo honetan sartzen da doktoretza tesia egin eta aurkeztea. Tesia ikerkuntzako jatorrizko lana izango da.

## **UNIBERTSITATE ALORREKO HAINBAT KONTZEPTU**

**ECTS KREDITUA:** ikasketa plan jakin batean programaturik dauden helburuak erdiesteko ikasleek egin behar duten guztirako lan-karga edo -bolumena neurtzeko onartu den neurria da ECTS (*European Credit Transfer System*) kreditua. ECTS bat 25 lanorduren pareko da, ikaslearentzat; ikasturte akademiko bakoitzak 60 ECTS dituenek, ikaslearen 1.500 lanordu dira; ordu horietarik batzuk presentziazkoak izango dira, eta beste batzuk, ez-presentziazkoak.

**KONPETENTZIAK:** prestakuntza-programen diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa gidatzen dituen erreferentzia laborala dira konpetentziak, eta bi motatakoak izan daitezke:

- Konpetentzia Espezifikoak: titulazioan (Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzan) garatu beharreko ezagutza, trebetasun eta jarrerren multzoa. Ezagutza-arlo edo diziplina espezifikoaren alderdi teknikoarekin dute zerikusia.
- Konpetentzia Orokorrak: tituluak dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrerren multzoa da, hala nola, konpetentzia pertsonalak eta pertsonen arteko konpetentziak. HUHEZIk graduetan hezi nahi dugun pertsonaren ezaugarri pertsonalekin definituak.

**IKASTE EMAITZAK:** konpetentzien lorpenerako ebidentziagarri eta ebaluagarri diren elementuak dira.

**ONARRIZKO FORMAZIOKO MODULUAK:** Espainiako unibertsitate eremuko graduko ikasketa plan guztiek graduko titulu horri dagokion ezagutza adarretako oinarrizko prestakuntzako 60 ECTS kredituak osatzen dituzte, Haur Hezkuntzakoak izan ezik (honakoa 100 ECTS osatua baitago); ezagutza horiek ikasketa planeko lehen bi ikasturteetan ematen dira. HUHEZIk egun dituen graduko hiru tituluak gizarte eta zuzenbide zientzien ezagutza adarrekoak direnez, horietako oinarrizko formazioko moduluk bertan daude kokaturik.

**DERRIGORREZKO FORMAZIOKO MODULUAK:** modulu hauek Fakultateak komuntzat eta derrigorrezkotzat ezarri ditu ikasketa beretan diharduten ikasleentzat.

**HAUTAZKO MODULUAK:** modulu hauek ikasleak aukeratu ahal izango ditu, dagokion titulazioan eskaintzen direnen artean.

Hezkuntza ikasketetan, hautazko modulu horiek ageri dira ikasleak gradu titulazio bakoitzean (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza) aukera ditzakeen ibilbideetan.

**KANPO PRAKTIKAK:** praktikak egitea derrigorrezkoa izango da, eta Fakultatearekin hitzartutako erakunde jakin batean egingo dira. Ikasleak ezingo ditu praktiketarako ikastetxeak bere kabuz hitzartu; zeregin hori fakultatek egingo da beti.

**GRADU BUKAERAKO LANA:** arautegi honetan sartzen diren ikasketa guztien bukaeran (2.aipamenekoak izan ezik) gradu bukaerako lana egin beharra dago, eta kasuan kasuko titulazioko memoria justifikatzailean modulu horri dagokion fitxan biltzen diren zehaztapen eta edukien arabera egingo da.

**HIZKUNTZAK HUHEZIN:** HUHEZI fakultateak bere printzipioetan argi adierazten du euskararekin duen konpromisoa. Euskara da HUHEZI fakultatearen komunikazio hizkuntza nagusia, instrukzio- zein harreman-hizkuntza nagusia, bai gela barruan, bai gelatik kanpo. Graduaren helburuen artean dago ikasleak prestatzea haien lana euskaraz eta kalitatez egin ahal izateko, baina baita, aldi berean, euskararen alde sentsibilizatzeko ere; hala, ikasleak bere lantoki eta ingurune hurbiletan euskararen sustatzaile izatea da jomuga.

Horretarako, HUHEZI fakultateak hizkuntza guztiekiko jarrera positiboak sustatu nahi ditu, bai elebidun egiten gaituzten euskara eta gaztelaniarekiko, baita, profil akademikoak eta profesionalak eraginda, ingelesarekiko ere. Hori dela eta, hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, hurbiltasuna, erabilera... sustatu eta bultzatuko dira, eta ikasleei horren arabera jarrera eta portaerak eskatuko zaizkie.

### 3. GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK

Ondoko taulan, laburbildurik, jaso ditugu titulu bakoitzeko graduko ikasketa planaren funtsezko ezaugarriak. Honakoak zehazten ditugu bertan: ikasketen iraupena; tituluak eskatzen dituen kredituen guztirako kopurua eta moduluka nola banatuak dauden; tituludunei eskudantzia profesionalak aintzat hartuko zaizkien ala ez, eta titulua zein ezagutza-adarretakoa den.

	<b>HAUR HEZKUNTZA (2020ko Plana)</b>	<b>LEHEN HEZKUNTZA (2020ko Plana)</b>	<b>IKUS-ENTZUN EZKO KOMUNIKAZIO A (2020ko Plana)</b>	<b>HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK</b>
Oinarrizko Formazioa	100	60	60	60
Derrigorrezkoak			102	84

Didaktiko-Diziplin arrak	60	100		
Hautazkoak	30	30	42	60
Praktikak	40	40	18	12
Gradu Bukaerako Lana	10	10	18	24
Ezagutza adarra	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak

## 4. SARBIDE ETA ONARPENA GRADUKO IKASKETETAN

### 4.1. Unibertsitatean estreinakoz sartzen diren ikasleen sarbidea.

Graduko ikasketetan sartu ahal izango dira hurrengo baldintzetako bat betetzen duten ikasleak: Batxilergoko edo titulu baliokidea dutenak.

- Goi Mailako Lanbide Heziketako titulua dutenak eta Unibertsitatean sartzeko baldintzak betetzen badituzte.
- Indarreko legeria gorabehera, Batxiler edo Goi Mailako Lanbide Heziketako tituluaren baliokidea dutenak, atzerrikoa denean.
- 25, 40 edo 45 urtez gorako pertsonentzako sarbide-probak gainditu dituztenak.
- Unibertsitate ikasketak hasita dituzten ikasleak edo unibertsitateko titulazioa daukatenak.

#### 4.1.1. Sartzeko lehenetsua izango dute:

Batxiler titulua dutenek, Unibertsitatean sartzeko probak gainditu badituzte. Ondoren zehazten diren adarretako Goi Mailako Heziketa Ziklo bat gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleek. Lanbide-heziketako titulua eta ikasi nahi den gradu- titulazioetako ezaguera-adarren arteko loturaren arabera, lehenetsuzko sarbidea izango dute honako titulu hauek:

ZEIN GRADUTAN SARTU NAHI DUTEN IKASLEAK	GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN FAMILIAK	GOI MAILAKO TITULUEN ZERRENDA
<b>HAUR HEZKUNTZAN</b>	Gizarte eta Kultur Zerbitzuak	- Zeinu Mintzairaren Interpretazioa - Haur Hezkuntza - Gizarte Integrazioa - Gizarte eta Kultur Animazioa.
<b>LEHEN HEZKUNTZAN</b>	Gorputz eta Kirol Ekintzak  Gizarte eta Kultur Zerbitzuak	- Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena - Zeinu Mintzairaren Interpretazioa - Gizarte Integrazioa - Gizarte eta Kultur Animazioa.

#### 4.1.2. Onarpen prozedura:

- **Izen ematea:** Izena emateko ohiko eta ez-ohiko epea egongo dira. Ikasle bakoitzak gehienez Mondragon Unibertsitatearen eskaintza orokorreko 2 titulaziotan eman dezake izena, lehen eta bigarren aukera izango dira eta plazak esleitzeko ordena ezarriko dute.
- **Proba espezifikoak:** Epe arruntean izena eman dutenek azaroa eta ekaina bitartean egingo dituzte titulu bakoitzari dagozkion proba bereziak. Izena emateko ohiko epea bukatu eta biharamunean zabalduko da izena emateko ez-ohiko epea.
- **Onarpena:** Ekaineko hirugarren astean, onarpen-notak kalkulatu dira finkatutako irizpideen arabera eta plazen esleipenaren berri emango da. Epe arruntetik kanpo izena eman dutenak, bigarren onarpen fase batean sartuko dira.
- **Matrikula:** Matrikulatzeko ohiko epea eta ez-ohikoa egongo dira. Matrikulatzeko ohiko epea, ikasleak onarpena jaso ondoren izango da. Matrikulatzeko ohiko epearen ostean beste epe bat zabalduko da plazak dauden titulazioetan.

#### 4.1.3. Onarpen nota kalkulatzeko irizpideak:

**Onarpen-nota** = Sarrera-nota (%60) + Proba espezifikoak (%40).

**Sarrera-nota (Batxilergo Amaierako Kalifikazioa): %70ko pisua.**

- Batxilergo Amaierako Ebaluazioa (BAE) gainditu duten Batxilergoko ikasleak:

*Batxilergo Amaierako Kalifikazioa (BAK) = 0,4 x BAE + 0,6 x Batxilergoko batez besteko nota.*

- Goi mailako Lanbide Heziketako titulu ofiziala duten ikasleak:

*Batxilergo Amaierako Kalifikazioa = Heziketa Zikloko batez besteko nota.*

- EBko edo ikasketak aitortzeko hitzarmena duten beste estatu batzuetako Batxilergoko tituluak edo baliokideak dituzten ikasleak:  
*Batxilergo Amaierako Kalifikazioa = UNEDek emandako egiaztagiriko nota.*

#### **Graduko titulazio bakoitzerako finkatutako konpetentzia- eta trebetasun-proba espezifikoak:**

- %30eko pisua.
- Proba espezifikoak ondoko elementuek osatuko dute: banakako proba eta taldeko proba.
- Proba honetan hainbat konpetentzia orokor behatuko dira: sormena, talde lana, jarrera eraikitzailea eta harremanetarako sentikortasuna, enpatia eta jarrera irekia.

**4.2. Goi-mailako Teknikari titulua edo Goi-mailako Kirol Teknikari titulua dutenak:** notaren arabera.

**4.3. 25 urtetik gorako sarbide-proba gainditu dutenak:** sarbide-probaren notaren arabera.

**4.4. 45 urtetik gorako sarbide-proba gainditu dutenak:** sarbide-probaren notaren arabera.

**4.5. Unibertsitate-titulua dutenak:** espediente akademikoaren batez besteko nota.

**4.6. Unibertsitate ikasketak hasita dauzkaten ikasleak:**

Lekualdaketak ezohiko egoeratzat hartu behar dira; horrenbestez, halakoak onartzeko, araudian finkaturiko irakaskuntza baldintzak betetzeaz gainera, beharrezkoa izango da fakultatearen edo ikastegiaren egitura (batez ere taldeentzako lekua egotea) egokia izatea.

Honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Gutxienez 30 ECTS kredituren aitortpena lortzea (412/2014 ED, ekainaren 6koa).
- Irakasgaietara aurkezteko deialdiak agortuta ez edukitzea irakasgai bakar batean ere.



- HUHEZIren araudiko egonaldi epeak amaituta ez edukitzea.

Ez da lekualdaketarik onartuko kredituak aitortu eta horrek automatikoki titulua eskuratzea dakarrenean.

Beste ikastegi batetik lekualdatuta etorritako ikasleek unibertsitateak eskatzen duen sarbide proba egin beharko dute, gainerako ikasle berrien baldintza beretan, eta espedienteko batez besteko nota hartuko da kontuan A.c. ataleko formula aplikatzeko.

Onarpen prozedura orokorrean sartuko dira Espainiako unibertsitate ikasketa ofizial partzialak dituzten eta beste unibertsitate batera joan nahi duten ikasleen eskaerak eta/edo Espainiako unibertsitate ikasketa ofizialak dituzten eta 1393/2007 Errege Dekretuko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera gutxienezko 30 ECTS kredituak aitortzen ez zaizkien ikasleenak.

Era berean, Unibertsitateak ezarritako ohiko epean izena eman duten ikasleei lehenetsua aitortuko zaie, ezohiko epean izena eman dutenen aurretik.

#### **4.7. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduatako egokitze kurtsotan sartzen diren ikasleen sarbidea.**

Irakasleentzako Gradurako Egokitze ikasketetan bakarrik sartu ahal izango dira aurretik **Irakasle Ikasketetan diplomatuak** diren ikasleak. Hauetariko titulu baten jabe izan behar da:

- Irakasle titulua, espezialitatea edozein dela ere. (RD 1440/1991).
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle titulua, espezialitatea edozein dela ere.

Horrez gain, ikasleek euskaraz zein ingelesez maila zehatza egiaztatu beharko dute (bertitulazio kasuetan izan ezik). Hizkuntza- mailak hurrengoak dira: Euskara-maila: C1. C1 maila egiaztatzen ez dutenei hizkuntza-proba bat egingo zaie. Ingeles-maila: B1. B1 maila egiaztatzen ez dutenei hizkuntza-proba bat egingo zaie.

#### **4.8. Modalitate erdi-presenzialeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Gradua ikasketetan sartzen diren ikasleen sarbidea.**

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduan modalitate erdi-presenzialeko ikasketetan bakarrik sartu ahal izango dira:

- Aurretik edozein goi-mailako ikasketak eginda dituztenak (diplomatu, lizentziatu, ingeniari, arkitekto edo graduatuak).

- Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu duten pertsonak.
- Lanbide Heziketako Goi-Mailako Moduluak (Hezkuntza alorrekoak) eta 5 urteko lan- eskarmentua dutenak.
- Goi-mailako kirolariak (Unibertsitatera sartzeko gainontzeko baldintzak betetzen baditu).
- Bestelako eskaerak dagokion batzordean kasuz kasu aztertuko dira eta edozein kasutan, ez dute lehentasunik izango.

## 5. MATRIKULA

### 5.1. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak (modalitate presentziala).

- 5.1.1. Matrikula-unitate administratiboa modulua da.
- 5.1.2. Ikasturte osoko matrikula 60 ECTS da.
- 5.1.3. Ikasle berriak: nahitaez, lehen ikasturteko kreditu guztien matrikula egin behar dute. Hala ere, hezkuntza alorreko premia bereziak eraginda, edo ikaslearen egokierarekin loturiko gorabeherak eraginda, eta ikasleak berak hala eskatuta, matrikulako kreditu kopurua orokorki xedatutakoa baino urriagoa izatea onartu ahal izango du dagokion graduako batzordeak.
- 5.1.4. Hurrengo matrikulak: Arautegi honetako VIII. atalean xedatzen denez ikasten jarraitzeko baldintzak betetzen baditu, ikasleak gutxienez 30 ECTSko matrikula egin beharko du. Titulazioa burutzeko gelditzen zaion kreditu kopurua arauz xedatutako gutxienez baina txikiagoa den kasuetan, falta zaizkion kreditu guztietan matrikulatu beharko da.
- 5.1.5. 30 eta 60 ECTS bitarteko matrikula partziala egiten duten ikasleek, hezkuntza proiektuan xedaturiko urteko sekuentzia bete beharko dute.
- 5.1.6. Ikasleak matrikulatuta dagoen kreditu kopuruen arabera ordaindu beharko ditu matrikula-tasak.
- 5.1.7. Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, kasuan kasuko Graduako Batzordeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.

### 5.2. Modalitate erdi-presentzialeko Graduak eta Gradurako Egokitze Ikastaroetan ikasketen kasuan:

- 5.2.1. Ikasleak erritmo desberdinen artean hautatu dezake, beti ere ondoko oinarritzko arauak errespetatuz:

- Ikasturte bakoitzeko gutxieneko matrikula 30 ECTSkoa izango da. Titulazioa burutzeko gelditzen zaion kreditu kopurua arauz xedatutako gutxienekoa baino txikiagoa den kasuetan, falta zaizkion kreditu guztietan matrikulatu beharko da.
- Aurreko ikasturtean gainditu edo matrikulatu gabeko modulu guztietan egin beharko da matrikula.
- Ikasketa planean ezarritako aurretiko betebeharrak eta hezkuntza proiektuan xedaturiko sekuentzia bete beharko du matrikulak.
- Ikasturtean zehar ezingo da aldatu uztailean edo irailean egindako matrikula.

**5.2.2.** Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, kasuan kasuko Graduak Batzordeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.

### **5.3. Kredituak aitortzeaz**

**5.3.1.** Hauxe esan nahi du kredituak aitortzeak: ikasleak Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako **ikasketa ofizialetan** eskuratutako kredituak, ikasten ari den Graduak tituluan konputatuko dira (kasuan kasukoetan), titulu ofiziala eskuratzeko helburuarekin.

Espedientea beste edozein unibertsitatetatik, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera lekualdatzekotan, edo, Mondragon Unibertsitatean bertan, irakaskuntza ofizialak aldatzekotan, oinarrizko formazioko kredituak automatikoki aitortuko zaizkio ikasleari, baldintza hauek betetzen badira:

- Gizarte eta Zuzenbide Zientzia adarrekoak eta Hezkuntzako moduluk izatea kredituak.
- Baliokideak izatea bai edukietan eta baita kreditu kopuruan ere.

**5.3.2.** **Gainerako kredituak Fakultate honek aitortu ahal izango dizkio** ikasleari, berak aurreko ikasketetan gainditutako materietako gaitasun eta ezagutzen eta HUHEZIKo Graduak aurreikusita daudenen arteko egokitzapenaren arabera.

**5.3.3.** **Lanbide Heziketako goi mailako teknikarien tituluak aitortzeko**, egokitzapenei, gaitasunei, ezagutzei eta ikaskuntzako emaitzei dagokienez, araudi honetako II. Eranskinean zehazten dira aitortuko diren kreditu eta ikasgaiak.

Aurreko paragrafoetan jasotakoaren arabera aintzat harturiko kredituak zenbakizko noten bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**5.3.4. Gradurako Egokitze Ikastaroen** kasuan egiaztatutako lan-eskarmentua aitortu ahal izango da kreditutan, betiere lan-eskarmentuak zerikusi zuzena baldin badu gradu-tituluari dagozkion konpetentziekin. Gehienez ere, 30 ECTS aitortu ahal izango zaizkio ikasleari, eta ezin izango dira aitortu Gradu Bukaerako Lanari (GBL) dagozkion kredituak.

Lan-eskarmentuaren aitortzarako irizpideak: Gradu tituluari dagokion ibilbide eta etapa bakoitzean izandako urtebete bakoitzarengatik, 6 ECTS aitortuko dira. Irakasle lanetan urtebeteko eskarmentutzat hartuko da ikasturte batean, jarraian edo aldika, gutxienez urtebete horretan bederatzi hilabetez aritu izana. Ezinbestekoa izango da ikastetxeko zuzendariaren egiaztageria, edo, bestela, zerbitzua eskaini

den Hezkuntza Erakundeko organo eskudunak egiaztatutako zerbitzu-agiria. Egiaztageri horietan ezinbestean azaldu beharko dira zerbitzuak eskainitako hasierako eta bukaerako egunak, zein hezkuntza mailatan eskaini den zerbitzua, eta araututako ikasketetako zein ibilbidetan aritu den.

#### **5.4. Kredituen transferentzia**

Kredituen transferentzia terminoak hauxe adierazten du: ikasleak Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako ikasketa ofizialetan eginiko ikasketei dagozkien kredituak, titulu ofizial bat erdiestera bideratu ez badira, ziurtagiri akademiko ofizialetan sartzea.

#### **5.5. Espediente akademikoa**

**5.5.1.** Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, titulua eskuratzeko, Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako irakaskuntza ofizialetan eskuratutako kreditu guztiak jasoko dira, hala kreditu transferituak, nola aitortuak zein gaindituak, aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, eta kasuan-kasuan zein motatakoak diren adieraziko da. Aitorturiko kredituak direnean, lehenagoko ikasketei dagozkien datu hauek emango dira: unibertsitatea(k), ikasketa ofizialak eta zein ezagutza-adarretakoak diren; gaindituriko ikasgai edo moduluk eta haien kreditu kopurua, eta ikasleak erdietsitako kalifikazioa.

**5.5.2.** HUHEZIK, Espediente Akademikoarekin batera, gehigarri bat emango dio ikasleari, aitortzen zaion unibertsitate esparruko zein jardueretan parte hartu duen jarduera akademikoetatik at. Kontuan hartuko dira: Kontseilu Errektoreko partaide izatea, ordezkaria izatea, HUHEZIK antolaturiko curriculumetik kanpoko jardueretan parte hartzea —Truke programa, Literatur Astea, Komunikaldiak, Zinema Saioak, etab.—.

**5.5.3.** Espediente akademikoa eta titulua jasotzeko ordura arteko ordainketa guztiak eginda izan behar dira eta dagokion tasa ordaindu beharko du ikasleak. Hori egin ezean, ezingo da ez espediente leku-aldaketarik egin, ez eta espedienterik edo titulurik jaso ere.

Ordaindu beharreko tasa, Eusko Jaurlaritzak zehazten du urtero, Goi-mailako hezkuntza zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko gainontzeko prezioekin batera. Graduako azken mailako ikasleei ekaineko kuotarekin batera kobratuko zaie tasa horri dagokion kopurua.

## **5.6. Tituluaren gehigarri europarra**

Dokumentu ofizial hori European Goi Mailako Hezkuntzako titulazioen gardentasuna areagotzeko definitu eta diseinatu zen. Gehigarri horren bitartez, titulazioak aintzat hartzea eta ikasleen mugikortasuna erraztuko da, baita ikasleak Europako lan merkatuan sartzea ere.

Tituluaren Gehigarri Europarra eskatu ahal izango dute unibertsitate ikasketa ofizialak burutzen dituzten ikasleek; eskaera egingo da titulu ofiziala eskatzen den une berean edo ondoren.

## **5.7. Matrikula ezeztatzea**

Idazkaritza Akademikoari eginiko eskari-agiri bidez (ZTX016 Ikaslearen Baja eskabidea), matrikula ezeztatzea eskatu ahal izango du ikasleak, eskaera hori ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehen egin beharko da. Matrikula ezeztatzea 1.aldian matrikulatuta dagoen ikasleak eskatu ahal izango du.

Matrikula egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen ez direnean edo datuak, zein dokumentazioa faltsutu direnean, ezeztapena ofizioz egingo da.

### **Ondorioak**

Ikasleak berak matrikula ezeztatzea eskatzen duenean edo matrikula ofizioz ezeztatu denean, ikasleak Fakultate honetan matrikulatuta

egoteari utzi egingo dio; beraz, ezingo zaio egin ikastetxe honekiko lotura duela egiazta lezakeen inolako agiririk.

Ezeztapen unera arte ikasleak ordainduriko matrikularen prezioa ez zaio inolaz ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden gainerako kopuruen kobrantza bertan behera utziko da.

## 5.8. Matrikula ezeztatzea

Gradua amaitzerakoan ikasleek dokumentazio akademiko hau jasoko dute:

- Espediente akademiko (euskaraz eta gaztelaniaz)
- Gradu Tituluari eta Tituluaren Gehigarri Europar eskaerari dagokion ziurtagiria.
- Euskara ziurtagiria: 47/2012 Dekretuak ezarritakoa jarraituz, C1 euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiria. Ziurtagiri honek Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan lan egiteko irakasleei eskatzen dieten euskarazko C1 maila egiaztatzen du. Beraz, irakasle gisa aritzeko, ziurtagiri hau nahikoa da euskara eskakizuna egiaztatzeko (Gradurako Egokitze Ikastaroetako eta Bigarren Gradu/Aipameneko ikasleek ez dute ziurtagiri hau jasoko, Dekretuak eskatutako baldintzak ez direlako aukera hauetan betetzen).

Kuota guztien ordainketa eginda izatea ezinbesteko baldintza da dokumentazio hau jasotzeko.

## 6. IKASLEAK BAJA ESKATZEA

### 6.1. Borondatez eskatzea baja

Ikasleak Fakultatean baja eman nahi duenean, eskari-agiri (ZTX016 Ikaslearen Baja eskabidea) bidez jakinarazi beharko dio Idazkaritza Akademikoari.

#### Ondorioak

Idazkaritza Akademikoak ikasleak ikasturtean burutzeko dituen deialdiak baliogabe utziko ditu eta bajaren berri helaraziko dio Administrazioari, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez

diezazkion. Baja eskaera **hilaren 10aren aurretik jaso ezean, hilabete horretako kuota kontutik pasako zaio ikasleari.**

Ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio, inolaz ere, itzuliko ikasleari.

## **6.2. Ikasten jarraitzeko deialdiak agortzearen ondorioz datorren baja**

Testu honetan jasotako arauen arabera ikasten jarraitzeko denbora agortzearen ondoriozko nahitaezko baja gertatzean, Idazkaritza Akademikoak baja horren berri helaraziko dio Administrazioari, hurrengo hilabetetik aurrera, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula kuota kobra ez diezazkion.

Aurreko kasuetan bezalaxe, ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio inolaz ere, itzuliko ikasleari.

## **7. ESKOLA EGUTEGIA**

Dagokion titulazioko Gradu Batzordeak proposatzen du eskola egutegia: ikasturtearen hasiera, oporraldiak, jaiegunak eta ikasturtearen amaiera noiz izango diren. Ondoren, Kontseilu Errektoreak onetsi egin behar du. Datuok Fakultateko webgunean argitaratuko dira, ikasleek horren berri izan dezaten.

Egutegi marko horretan antolatuko dira ikasturte bakoitzeko moduluak. Moduluen baitan daude aurreikusita ikaste emaitzen garapenerako testuinguru, esperientzia eta jarduerak. Halaber, horien baitan integraturik daude ikaste emaitza horien garapena ebaluatzeko eta moduluak eurak kalifikatzeko prozedurak.

Ikasturteko azken moduluko konfiantza espazioa bi astez luzatuko da eta inoiz ez uztailleko lehen astea baino gehiago.

## **8. IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK**

### **8.1. Ebaluazio eredua eta kalifikazio sistema**

HUHEZIKo ebaluazio eredua ebaluazio hezitzailean oinarritzen da, hiru ezaugarri nagusirekin: benetako ebaluazioa, ikaskuntzaren garapenaren ardura ikasleak du eta ikaskuntza autonomoa. Eredua honen baitan, ebaluazioa ikaslearen garapenaren mesedetan jarriko den tresna moduan ulertzen da, hau da, ikaskuntza eta ebaluazioa bereizi ezin diren prozesu

baten elementu gisa irudikatzen dira. Ebaluazio eredu honek berarekin dakar ikasleak bere prozesuaren gaineko kontzientzia eta ardura hartzea. Ebaluazio hezitzaile, holistiko eta erreal baterako bidean, bere prozesua autorregulatzea, haren kontzientzia hartzea eta konpromisoa erakustea izango du helburu ikasleak esperientzia honetan. Era berean, prozesu horretan bidelagun izango ditu moduluetakako irakasle eta ikasturteko tutoreak, prozesu hori sakondu, indartu eta garatu ahal izateko. Ondorengo lerroetan xehetuko dira moduluko ebaluazio prozesua eta baita ikasturteko tutorearekin bideratzen den norbere garapeneko prozesua ere.

**Modulua:** Moduluak 0 eta 10 zenbakien (dezimal bakarrez) arteko puntuen bitartez kalifikatuko dira. Horretan, 5 eta 10 puntu (biak barne) bitarteko kalifikazioa lortzen duenak modulua gaituko du, eta 5 puntura iristen ez denak ez du gaituko. Moduluen kalifikazio globala ikasle eta irakaslearen prozesu konpartitu baten bidez zehaztuko da.

**Ikaste emaitzak:** Modulu bakoitzak bere ikaste emaitza espezifiko zein orokorrak izango ditu eta hauen ebaluazioa moduluen baitan egingo da.

- **Ikaste emaitza orokorrak:** Egoki edo Desegoki moduan ebaluatuko dira eta modulua gaituzeko baldintzatzaile izango dira. Hau da, nahitaezkoa izango da ikaste emaitza orokorretan garapen egokia lortzea moduluen amaieran.
- **Ikaste emaitza espezifikoak:** Egoki edo Desegoki moduan ebaluatuko dira. Egoki denean, A, B, C mailaketa sistemaren arabera kalifikatuko dira ikaste emaitza hauen kalitatearen edo sakontasun mailaren arabera. Desegoki denean, D edo E mailaren arabera kalifikatuko dira.
- D mailaren kasuan, ikasleari **konfiantza eremu** bat zabalduko zaio ikaste emaitza horren garapen egokira iritsi dadin. Iritsi ezean modulua gaitu gabe geratuko da eta hurrengo ikasturtean errepikatu beharko du. Konfiantza eremua amaitzean ikaste emaitzen mailakatze prozesua berriro ere egingo da, ikaste emaitza Egoki den kasuan A, B edo C mailara iristeko aukera izango duelarik ikasleak.
- E mailaren kasuan, moduluan ikaste prozesurik ez dela egon ulertuko da eta, ondorioz, modulua bere osotasunean errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.

Moduluak kalifikazio globala jasoko du eta ikasle eta irakaslearen prozesu konpartitu baten bidez zehaztuko da. Ikasleak, lehenengo moduluko ikaste emaitzen autoebaluazio kualitatiboa egingo du. Ondoren, moduluan zehar egin duen prozesuari 0tik 10erako zenbakizko kalifikazio bat zehaztuko dio dagokion plataforman. Aldi berean, irakasleak ere ikaslearen ikaste-prozesuari zenbakizko kalifikazio bat zehaztuko dio. Kalifikazioa hamarren bakarrarekin



jarriko da. Prozesu hau ikasle eta irakasleak itsuan egingo dute. Behin kalifikazioak zehaztuta, eta, desberdintasuna balego ikasleak bere buruari jarritako notaren eta irakasleak jarritako notaren artean ikasle eta irakaslearen arteko bilera bat egingo da. Bilera horretan ikaste emaitzen inguruko ebidentziak ekarriko dituzte biek eta autoebaluazioari buruz eta kalifikazioari buruz hitz egingo da. Bilera horren ondoren, moduluko kalifikazioa jartzeko ardura irakasleari dagokio.

Ikasleren batek bere moduluaren auto-kalifikaziorik ez balu jarriko, irakasleak jarritako kalifikazioa adieraziko da zuzenean dagokion plataforman eta ez da errebisiorako aukerarik egongo.

Modulua bukatzen denean, A, B eta C kalifikazioak daudenean, behin-betiko kontsideratuko dira. D eta E kalifikazioen kasuan berriz, uztailean bihurtuko dira behin-betiko. Ebaluazio prozesu guztiak itxita egongo dira ikasturte bakoitzeko uztailaren lehenengo asterako. Ikasturteko egutegi akademikoaren arabera zehaztuko da data.

Ikasturte bakoitzean modulu bakoitzak deialdi bakarra izango du, uztailekoa. Bestalde, modulu gaingitu ahal izateko 4 deialdiren aukera izango du ikasleak. Aldiz, praktikaldi bakoitza gaingitu ahal izateko bi deialdi izango ditu. Ikasleak moduluko kalifikazioak berrikustea eska dezake. Berrikusketa epea moduluko behin betiko kalifikazioa argitaratu eta bi asteren epean egin beharko da. Prozedura dagokion Gradu Batzordeak zehaztuko du.

GBLa aurkeztu ahal izateko gainontzeko ECTSak gaingituak izatea derrigorrezkoa izango da. Salbuespen egoeran, dagokion gradu batzordeak baloratuko du zein prozedura jarraituko den GBLauren aurkezpena egiteko.

GBLa defendatu ahal izateko euskarazko C1 mailaren egiaztapena aurkeztu beharko da. Maila egiaztatzen ez den kasuetan ezingo da GBL defendatu.

Modulu bat errepikatzeko orduan, ikaslea dagokion klase presentzialetara joan beharko da modulu gaingitu ahal izateko. 2. mailako modulu denean eta ikaslea 3. mailan dagoenean salbuespen kasu bezala ulertzen da eta klasera joan gabe modulu egiteko aukera aktibatuko zaio.

Ikasleen kalifikazio eta ebaluazio prozesuei buruz ikasleekin bakarrik hitz egingo da, adin nagusikoak izanik, ez baitute gurasoen ordekaritza behar.

## **8.2. Ikasten jarraitzeko arauak eta titulazioz aldatzeko arauak**

### **8.2.1. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak (modalitate presentziala).**

**8.2.1.1.** Gradua lau ikasturtetan egituratua dago; horietako lehen bietan sartzen da oinarrizko formazio osoa. Bi ikasturte horien arteko igarotzea ondoko arauen bidez erregulatuko da:

- **Lehenengo maila:** ikasle sartu berriek, gutxienez modulu bat gainditu beharko dute lehenengo ikasturtean, HUHEZIn ikasten segituko badute. Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, kasuan kasuko Graduko Batzordeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.
- **Bigarren maila:** bigarren mailara igaro ahal izateko, lehen mailako 42 ECTS gainditu beharko ditu ikasleak (non eta 60 ECTS baino gutxiagotan matrikulatu ez den, V. puntuak, salbuespenezko kasuei dagokienean xedatu bezala). Ezinbestean gainditu beharko da “Esperientzia hezitzaileak HHrako/LHrako” modulua, “Practicum I” barne duena.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasketen arteko aldaketak lehenengo eta bigarren mailan:

- Lehen Hezkuntzako Gradutik Haur Hezkuntzako Gradura pasatzea (edo alderantziz), posible izango da lehenengo mailaren bukaeran. Horretarako, hurrengo urratsak bete beharko dira:
  - Aldaketaren eskaera arrazoitua dagokion Graduko Batzordeari bidali ikasturte horretarako zehazten diren datetan.
  - Graduko Batzordeak aurkezten diren arrazoiak aztertuz eta dituen baldintzak ikusiz (ikasle kopuru orokorra, ibilbide bakoitzeko ikasle kopurua, ikaslearen ibilbide akademikoa...) erantzungo dio ikasleari:
  - Baietza izanez gero, derrigorrez, Gradu berri horretarako zehaztutako ikasgaietan matrikulatu beharko da.
  - Ezetza izanez gero, dagoen graduan jarraitu beharko du.
- Aipameneren arteko aldaketak: Gradu barneko ibilbideen arteko aldaketak posible izango dira bigarren mailan. Ikasle bakoitzak eskari bakar bat egin ahal izango du. Horretarako, hurrengo urratsak bete beharko dira:

- Aldaketaren eskaera arrazoitua dagokion Gradu Batzordeari bidali idazkaritzatik zehaztutako epean, Gradu horretan jorratu nahi duen ibilbide berria adieraziz.
- Gradu Batzordeak aurkezten diren arrazoiak aztertuz eta dituen baldintzak ikusiz (ikasle kopuru orokorra, ibilbide bakoitzeko ikasle kopurua...) erantzungo dio ikasleari:
  - Baietza izanez gero, hurrengo ikasturtean aukeratu duen ibilbide berrian matrikula egin ahal izango du:
  - Ezetza izanez gero, dagoen Gradu aipamenean jarraitu beharko du.

**8.2.1.2. Hirugarren eta laugarren mailak** Graduan espezializatzen bideratuak daude eta bi maila horien arteko igarotzea hurrengo arauen arabera erregulatuko da:

- **Hirugarren maila:** ikaslea hirugarren mailara igarotzeko baldintzak honako hauek dira:
  - Lehen edota bigarren mailetatik gehienez ere 18 ECTS izanda gainditu gabe.
  - “Esperientzia hezitzaileak HHRako (HH)/LHRako (LH)” eta “Alfabetizazio anitzak (LH) / Ikaskuntza eta garapena errazten irakaslearen roletik (HH)” gaindituta izan behar dira. Hau da, gehienez aurreko mailetako 18 ECTS izango ditu.
  - Ikaste kontratua errebisatuko da eta konpromiso pertsonalak bidean izan behar dira.
- **Laugarren maila:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetan, maila honetan sartu ahal izateko baldintzak honako hauek dira: gehienez aurreko mailetako 18 ECTS izango ditu.
  - Gradu Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko baldintzak honako hauek dira:
    - Ikasketa plangintza osatzen duten beste modulu guztiak gaindituta izan behar dira.
    - Euskarazko C1 maila egiaztatuta edo azterketa gaindituta izan behar da.

- Konpromiso pertsonalak bidean izan behar dira.

**8.2.1.3. Deialdi kopurua:** ikasleak, modulu bakoitzeko, gehienez lau deialdi izango ditu. Practicum-eko moduluak 2 deialdi izango dituzte.

Practicum bakoitza beste modulu batekin lotuta dago. Ikasturte akademiko barruan bi moduluak gainditu behar dira. Ez da aukerarik egongo modulu gainditu eta practicum ez gainditzeko, edo alderantziz. Hau da, bietako bat gainditu ezean guztia errepikatu beharko da. Practicum beste modulu batekin lotuta dauden moduluak ondorengoak dira:

- Esperientzia hezitzaileak Haur Hezkuntzarako + Practicum I
- Esperientzia hezitzaileak Lehen Hezkuntzarako + Practicum I
- Ikaskuntza eta garapena errazten irakaslearen roletik + Practicum II
- Alfabetizazio anitza + Practicum II
- Esperientzia Didaktiko Biziak + Practicum III
- Aipamen bakoitzeko hirugarren moduluak - Practicum IV
- Berrikuntzan ikerlari-eragile + Practicum V

Eskolak egindako practicumaren balorazioa negatiboa bada, nahiz eta bukaerako kalifikazioa 5a baino altuagoa izan, practicum ez da gainditua izango.

Gradu Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketa plana osatzen duten gainerako modulu guztiak gaindituta izatea. Deialdiak agortzen dituzten ikasleek ezingo dute ikasketa hauekin jarraitu. Halere, onartua izanez gero, beste ikasketa batzuei ekin ahal izango die Unibertsitate honetan beste behin bakarrik.

Kasu bakoitza dagokion batzordean aztertuko da.

**8.2.1.4. Ebaluazio deialdiari uko egitea:** Deialdi kopurua zenbatzerakoan ikaslea aurkezten ez denekoa ere kontuan hartzen da. Ez, ordea, ikasleak ebaluazio deialdiari uko egiten dionean. Deialdiari uko egiteko honako arauak jarraituko dira:

- Justifikatu beharrik gabe modulu bakoitzeko gehienez uko baterako eskubidea izango du (kalifikazio aktetan "KE" gisa jasoko da). Modulu bakoitzean uko eskatzeko epea Egutegi

Akademikoan jasotako daten barruan egin beharko da. Egutegia Ikasle Gunean egongo da.

- Gaixotasun-arazoak direla-eta edo beste egoera ezohiko batean ere, ukoa aurkeztu ahal izango da (kalifikazio aktetan “KU” gisa jasotzen dena) eta dagokion Graduak Batzordeak erabakiko du. Honetarako, ikasleak eskaria egin beharko du idazkaritza birtualaren bidez. Eskubide horietaz baliatzeko ikasleak eskaria Moodle-en horretarako egokitutako atalean egin beharko du. Deialdiari uko egiteak suposatzen du deialdi horretan ezin dela aurkeztu eta ez duela kalifikaziorik izango. Modulu horren deialdiari dagokion diru kopurua ez zaio itzuliko.

**8.2.1.5. Deialdiak aurreratzeko aukera:** ikasleek GBL moduluko deialdia aurreratzeko eskubidea izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

#### Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetan

- Laugarren mailako ikaslea izan eta GBLan bigarren aldiz matrikulatuta egotea.
- GBLaz gain gehienez titulazio osoko kreditu kopuruaren %5a izatea pendiente, eta modulu guztiak beranduenez otsaileko deialdikoak izatea.
- Ikasturte bakoitzean bakarrik behin eskatu ahal izango da deialdi aurrerapena, eta azaroak 15a baino lehen egingo da eskaera, Idazkaritza Akademikoak horretarako ipinitako epean.
- GBLa aurreratzen duenak aurreratzen zioen deialdia izango da ikasturteko deialdi bakarra. Hau da, martxora aurreraten badu, ez du uztailleko deialdirik izango.
- GBL aurrerapena eskatu duen ikasleak, martxoko deialdi aurreratuan kalifikazio bat eramango du (0-10 bitartean) eta hortaz deialdi hori erabili egin beharko du nahitaez.
- Martxoko deialdi aurreratuan ikasleak ez du izango aukerarik UKOririk (ez KU eta ez KE) eskatzeko.
- GBLaren defentsa aurrez aurre egingo da. Salbuespenak Hezkuntza Graduen Koordinazio taldeak aztertuko ditu.

**8.2.1.6. Norbere garapena.**

- Norbere Garapenaren prozesuari dagokionean honela erregulatuko da:

- Norbere Garapenaren ebaluazio jarriak ziklokako ikuspegia izango du. Ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatze aldera.
- Hala ere maila guztietan ikaslea bere prozesuaren egoeraz jabe izango da; 1. eta 3. mailatan prozesuaren egoeraren berri izango du; hau da prozesua egin duen edo zehatz jakinaraziko zaio.
- 2. mailaren kasuan ikasleak ikasturte bukaeran prozesurik egin ezean ulertuko da Norbere Garapeneko prozesua egin ez duela eta horregatik ezingo da 3. mailan bere osotasunean matrikulatu. Gehienez 36 ECTStan matrikulatu ahal izango da, bestelako denbora Norbere Garapeneko prozesua burutzeko aukera emango diolarik.
- 4. mailan berriz, 2. zikloko prozesua egin ezean ikasleak ezingo du GBLaren defentsa egin eta hurrengo deialdirako utzi beharko du ezinbestean, honela ere Norbere Garapeneko prozesua egiteko aukera izanik.

## 8.2.2. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak (modalitate erdipresentziala).

8.2.2.1. Gradua lau ikasturtetan egituratua dago; horietako lehen bietan sartzen da oinarrizko formazio osoa. Bi ikasturte horien arteko igarotzea ondoko arauen bidez erregulatuko da:

- **Lehenengo maila/ikasturtea:** ikasle sartu berriek, matrikulatu diren kreditu guztien %10 gainditu behar dute gutxienez, lehen ikasturtean, HUHEZIn ikasten segituko badute.
- **Bigarren ikasturtea eta ondorengoak:**
  - Aurreko ikasturtean gainditu edo matrikulatu gabeko modulu guztietan egin beharko da matrikula.
  - Gehieneko matrikula 78 ECTSkoa izango da.
- Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, kasuan kasu, Hezkuntza Graduen Koordinazio Batzordeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.

Hezkuntzako Graduetako ikasketen arteko aldaketak lehenengo eta bigarren urtean:

- **Lehen Hezkuntzako Gradutik Haur Hezkuntzako Gradura pasatzea** (edo alderantziz), posible izango da lehenengo mailaren bukaeran. Horretarako, hurrengo urratsak bete beharko dira:
  - Aldaketaren eskaera arrazoitua dagokion Gradu Batzordeari bidali ikasturte horretarako zehaztutako datetan, Gradu berrian jorratu nahi duen ibilbidea adieraziz.
  - Gradu Batzordeak aurkezten diren arrazoiak aztertuz eta dituen baldintzak ikusiz (ikasle kopuru orokorra, ibilbide bakoitzeko ikasle kopurua, ikaslearen ibilbide akademikoa...) erantzungo dio ikasleari:
  - Baietza izanez gero, derrigorrez, Gradu berri horren 1.go mailako zehaztutako moduluetan matrikula egin beharko du eta ezingo du 2. Mailako moduluetan matrikulatu.
  - Ezetzta izanez gero, dagoen ibilbidean jarraitu beharko du.

**Aipamen arteko aldaketak:** Gradu barneko ibilbideen arteko aldaketak posible izango dira bigarren mailan. Horretarako, hurrengo urratsak bete beharko dira:

- Aldaketaren eskaera arrazoitua dagokion Gradu Batzordeari bidali ikasturte horretarako zehaztutako datetan, Gradu horretan jorratu nahi duen ibilbide berria adieraziz.
- Gradu Batzordeak aurkezten diren arrazoiak aztertuz eta dituen baldintzak ikusiz (ikasle kopuru orokorra, ibilbide bakoitzeko ikasle kopurua...) erantzungo dio ikasleari:
- Ezetzta izanez gero, dagoen Gradu ikasketetan jarraitu beharko du.

Gradu eta aipamen aldaketa Gradu osoa on line egiten dutenek bakarrik eskatu ahal izango dute.

- 8.2.2.2. Deialdi kopurua:** ikasleak, modulu bakoitzeko, gehienez lau deialdi izango ditu. Practicum-eko moduluak 2 deialdi izango dituzte.

Practicum bakoitza beste modulu batekin lotuta dago. Ikasturte akademiko barruan bi moduluak gainditu behar dira. Ez da aukerarik egongo modulua gainditu eta practicum ez gainditzeko, edo alderantziz. Hau da, bietako bat gainditu ezean

guztia errepikatu beharko da. Practicuma beste modulu batekin lotuta dauden moduluak ondorengoak dira:

- Esperientzia hezitzaileak Haur Hezkuntzarako + Practicum I
- Esperientzia hezitzaileak Lehen Hezkuntzarako + Practicum I
- Ikaskuntza eta garapena errazten irakaslearen roletik + Practicum II
- Alfabetizazio anitza + Practicum II
- Esperientzia Didaktiko Biziak + Practicum III
- Aipamen bakoitzeko hirugarren modulua - Practicum IV
- Berrikuntzan ikerlari-eragile + Practicum V

Gradu Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketa plana osatzen duten gainerako modulu guztiak gaindituak edukitzea.

Deialdiak agortzen dituzten ikasleek ezingo dute ikasketa hauek jarraitu. Halere, onartua izanez gero, beste ikasketa batzuei ekin ahal izango die Unibertsitate honetan beste behin bakarrik.

- 8.2.2.3. Ebaluazio deialdiari uko egitea:** Deialdi kopurua zenbatzerakoan ikaslea aurkezten ez denekoa ere kontuan hartzen da. Ez, ordea, ikasleak ebaluazio deialdiari uko egiten diotenean.

Gaixotasun-arazoak direla-eta edo beste egoera ezohiko batean ere, ukoa aurkeztu ahal izango da (kalifikazio aktetan "KU" gisa jasotzen dena) eta dagokion Gradu Batzordeak erabakiko du. Honetarako, ikasleak eskaria egin beharko du idazkaritza birtualaren bidez. Deialdiari uko egiteak suposatzen du deialdi horretan ezin dela aurkeztu eta ez duela kalifikaziorik izango. Modulu horren deialdiari dagokion diru kopurua ez zaio itzuliko.

- 8.2.2.4. Deialdiak aurreratzeko aukera:** Gradua (4 urteak) modalitate erdi presentzian egiten ari diren ikasleek GBL moduluko deialdia aurreratzeko eskubidea izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetan:

- 1. GBL moduluan bigarren aldiz matrikulatua egotea.
- 2. Deialdi hau aurreratu ahal izango du:
  - Ekainetik martxora
- Eskaria Idazkaritza Akademikoan egin beharko da, ikasturte bakoitzeko azaroak 15a baino lehen.



- Koordinatzaileekin kontrastatu ondoren Graduako Batzordeak erabakiko du kasu bakoitzean deialdi aurrerapena onartzen duen ala ez.
- Ezin da UKOrrik eskatu aurreratutako deialdietan.
- GBLaz gain gehienez titulazio osoko kreditu kopuruen %5a izatea gainditu gabe, eta modulu guztiak beranduenez otsaileko deialdikoak izatea.

#### 8.2.2.5. Norbere garapena.

Norbere Garapenaren prozesuari dagokionean honela erregulatuko da:

- Norbere Garapenaren ebaluazio jarraiak ziklokako ikuspegia izango du. Ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatze aldera.
- Hala ere maila guztietan ikaslea bere prozesuaren egoeraz jabe izango da; 1. eta 3. mailatan prozesuaren egoeraren berri izango du; hau da prozesua egin duen edo ez zehatz jakinaraziko zaio.
- 2. mailaren kasuan ikasleak ikasturte bukaeran prozesurik egin ezean ulertuko da Norbere Garapeneko prozesua egin ez duela eta horregatik ezingo da 3. mailan bere osotasunean matrikulatu. Gehienez 36 ECTStan matrikulatu ahal izango da, bestelako denbora Norbere Garapeneko prozesua burutzeko aukera emango diolarik.
- 4. mailan berriz, 2. zikloko prozesua egin ezean ikasleak ezingo du GBLaren defentsa egin eta hurrengo deialdirako utzi beharko du ezinbestean, honela ere Norbere Garapeneko prozesua egiteko aukera izanik.

### 8.3. Klaseetara asistentzia (modalitate presentzialean)

Arau orokor bezala aurrez aurreko saioetan %80 asistentzia bete behar da modulu guztietan. Horrek ahalbidetzen du aurrez aurrekoan egindako lanak, dinamikak, hitzaldiak... garatzea; alegia, ikaste emaitzen garapenerako testuinguru eta esperientziak bizi eta horretarako jarduerak burutzea. Asistentzea faltengatik modulua ezingo da gainditu eta konfiantza espazioa izango du ikasleak ikaste emaitzen garapenaren ebidentziatorako.

Arrazoi ezberdinengatik gerta litezkeen asistentzia faltak aurreikusiak eta arrazoiak izan daitezkeen kasuetan (lana, zaintza, gaixotasuna, federatutako kirol lehiaketa ofizialak...), ikasleak graduako koordinatzaileei eskaria eginez gero, graduako batzordetik egoera zehatza aztertu eta baimena emateko aukera baloratuko da (beti ere %20koa baino gehiago balitz), Ondoren, ikasleak asistentzia falta horietarako baimena izango duen kasuetan, moduluko irakaslearekin adostuko du zer egin modu ez

presentzian zeregin eta ikaste emaitza horiek garatzeko. Hori kontratu batean jasoko da eta ondoren irakasle eta tutorearekin partekatuko da.

Arrazoitutako asistentzia falta horiek moduluaren lanketa ezinezkoa egingo balute edo eta modulutik haratago luzatuko direla aurreikusiko balitz, egoera ikaslearekin, tutorearekin eta graduatuko koordinatzaileekin aztertuko da. Hauek kasuan kasu aztertuko dira eta beharrezko neurriak hartuko dira ikaslearen ibilbide akademikoan zein pertsonaren zaintzan pentsatuaz.

#### **8.4. Zintzotasun akademikoa. Plagioen kasuak**

Plagioa egitea ez da zilegi, ez ikasleen jarrera pertsonal moduan, ezta etorkizunean irakasle profesionala izan nahi duen pertsona batengan ere. Ez da zilegi praktika engainagarria delako, eta horrela zalantzan jartzen delako ikaslearen zintzotasun akademikoa. Hortaz gain, plagioa egitea ez da legezkoa; izan ere, jabetza intelektualaren eskubideak urratzen dira (egile-eskubideak errespetatzen ez baitira). Eta larritasunaren arabera, ondorio penalak ekar ditzake.

Plagioa izan dela ulertuko da ikasleak beste baten lana, zatika edo osotasunean, berea balitz bezala aurkezten badu, hau da, horren jatorria era egoki eta estandarizatu batean aipatu gabe, eta beharrezkoa den kasuetan, egilearen baimenik izan gabe. Edozein motatako euskarritan dauden sormen-lanei eragin diezaike praktika desegoki honek: testuak (esaldiak, paragrafoak edo lan osoak), irudiak, bideoak, grafikoak, musika-lanak eta abar.

Gauzak horrela, ikasleak plagioa egin duela ziurtatzen badu irakasleak, Gradu Batzordera deitua izango da azalpenak emateko. Dagokion moduluko konfiantza eremura joango da zuzenean eta Plagioen Jarraipen Zerrendan gehituko da ikaslearen izena.

Ikasle batek bigarren aldiz plagioa egin duela frogatzen denean Gradu Batzordeak erabakiko du ikaslea behin behinekoz edo behin betikoz fakultatetik kanporatua izango den.

Plagioa egin izanaren eta beronen ondorioen jakinarazpena idatziz jasoko du ikasleak eta jakinarazpen hori Idazkaritza Akademikoan gordeko da.

#### **8.5. Elkarbizitza**

HUHEZI proiektu partekatu bat duen komunitatea da. Komunitate horretako kide dira bertan lan egin eta ikasten duten pertsona guztiak eta beraiei

dagokie proiektu hori elikatzea. Norabide horretan, guztion ardura da komunitate horren oinarritzko printzipio batzuk betetzea. Horien artean kokatzen ditugu bizikidetzarako ondorengo oinarriak:

- Denontzako espazio aske eta segurua da: Bide horretan fakultateak sortua du “Sexu-jazarpenari, generoan oinarritutako jazarpenari eta bestelako indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa”. Era berean kontuan hartuko da beste edozein bereizkeria, jazarpen edo indarkeria egoera.
- Lan egin eta ikasteko begirunezko harremanak beharrezkoak dira. Bide horretan ezinbestekoa izango da taldeko lan giroarekiko ardura, lankide eta ikaskideekiko errespetuzko jokabidea eta fakultateko azpiegitura, baliabide eta materialak zaintzea.
- Ezin da grabatu elkarrizketa, bilera edota saiorik bertako partaide guztien jakinarazpen eta onarpen espliziturik gabe. Honen erabilerarik ere ez da onartuko.
- HUHEZI euskaraz bizi den eta bizitzen jarraitu nahi duen komunitatea da.
- Biblioteka zerbitzuko materialak erabiltzeko arautegia 5. eranskinetan jasotzen da.

Guztioi dagokigu hauek betetzea. Hauek sistematikoki urratu eta horien aurka egitea arau hauste gisa ulertuko da eta dagokion batzordeak egoera aztertu eta dagozkion neurriak hartuko ditu.

Ezingo dira ikaslearen tutore, GBLko tutore edo epaimahaikide izan ondorengoak: laugarren graduaren barruan odolkidetasunezko edo kidetasunezko ahaidetasuna duten irakasleak, ezta lanaren tutorearekin, zuzendariarekin, zuzendarikidearekin edo ikaslearekin adiskidetasun intimoa edo ageriko etsaigoa dutenak.

## 9. PRACTICUM-AK

Gradu guztiaren zehar 5 praktikaldi daude. Praktikaldi bakoitza modulu baten barne kokatzen da.

- 1. maila, Haur Hezkuntza: Esperientzia hezitzaileak Haur Hezkuntzarako+ Practicum I
- 1. maila, Lehen Hezkuntza: Esperientzia hezitzaileak Lehen Hezkuntzarako + Practicum I
- 2. maila, Haur Hezkuntza: Ikaskuntza eta garapena errazten irakaslearen roletik + Practicum II
- 2. maila, Lehen Hezkuntza: Alfabetizazio anitzak + Practicum II

- 3. maila, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: Esperientzia Didaktiko Biziak + Practicum III
- 3. maila: Aipamen bakoitzeko hirugarren modulua - Practicum IV
- 4. maila: Berrikuntzan ikerlari-eragile + Practicum V

Practicumari dagokionez arautegi propioa du. Praktikaldiei dagozkien prozesu guztietan aplikatuko da ikasturte bakoitzean argitaratzen den "Practicum arautegia".

## 10. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA

### 10.1. Mugikortasun programen kudeaketa

Mugikortasun programen planifikazioa eta kudeaketa HUHEZIKo Nazioarteko Harremanen arduradunaren eskumenekoa da. Laburki eta era ez-sekuentzian zehaztuko ditugu bertako programan diren egitekoak:

- Ikasleen artean nazioartean aritzeko eskaintza banatzea eta ikasleek beraien lehentasunak agertuko dituzten galdetegiak betetzea.
- Espediente akademiko, hizkuntza maila (horrela eskatzen duten herrialdeetan), aukeratutako tokian egin beharreko ikasketen eta ikaslearen zaletasunen arabera lekuak esleitzea, ahal den neurrian.
- Aurretiazko tramite administratiboak formalizatzea (Mugikortasun programa bakoitzaren arabera araudi espezifikoko ezarritakoak).
- Egonaldia atzerrian: *Learning Agreement* edo hitzarmen akademikoa deitutako dokumentua betetzea beharrezkoa bada, ECTS kredituak aitortzea eta metatzea, atzerriko erakundean prestakuntza-epea amaitutakoan, kanpoko unibertsitatean erdietsitako emaitzak ikusirik.

### 10.2. Kredituak aintzat hartzeko sistema (unibertsitateen arteko mugikortasun programak)

Unibertsitateen arteko mugikortasun programen babesean, atzerrian egonaldiak egingo dituzten ikasleen kredituen aintzakotzat hartze eta metatzeko sistema hurrengo baldintzetan oinarritzen da:

- *Learning Agreement* edo hitzarmen akademikoa dokumentuan jasoko da ikasleak zein modulu egingo dituen bere egonaldian

eta zein modulu hartuko zaizkion aintzat Fakultate honetara ikastera itzultzen denean.

- Ikasleak jatorrizko *Learning Agreement* edo hitzarmen akademikoa aldatzea proposa lezake, baldin eta aldatze horren arrazoiak agertzen baditu.
- Dagokion Graduak Batzordeak proposamena aski arrazoituztat jotzen badu, aldaketa onartuko du.
- Ikasleak atzerriko egonaldia amaitutakoan, Fakultate honetan egin ez dituen kredituak egindakotzat aitortuko zaizkio eta atzerriko erakundearen (*Learning Agreement* edo hitzarmen akademiko dokumentuaren arabera) erdietsi duen kreditu-kopuruaren antzeko eskola-karga izango du berton.
- Aurreko ataletan xedatutakoaren arabera aitorturiko kredituak zenbakiz kalifikatuko zaizkio, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Atzerriko egonaldiengatik aitortuko diren kredituei dagozkien materien kalifikazioa, materietako bakoitzean ikasleak erdietsitako kalifikazioa bider horietako bakoitzari izendaturiko kreditu kopuruaren arteko batezbesteko haztatua izango da.
- Goian adierazi bezala, aitorturiko tituluak ere jasoko dira ikaslearen espediente akademikoan. Horrelakoetan, jatorrizko materiei dagokien informazio hau adierazi beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofiziala(k) eta hori(ek) zein adarretakoak diren; gairaturiko ikasgai edo moduluak eta kreditu-kopurua, eta erdietsitako kalifikazioa.
- Tituluaren Gehigarri Europarrean zehazki adieraziko dira, horretarako berariaz agertzen den atalean, ikasleak eginiko mugikortasun egonaldiak: unibertsitatea(k), ikasgai ofizialak eta horiek zein adarretakoak diren; gairaturiko ikasgai edo moduluak eta kreditu-kopurua, eta erdietsitako kalifikazioa.

Araudi honen II. Eranskinean zehazten dira kredituak aintzat hartzeko sistemaren berezitasunak.

Atal honetan aipatutakoaz gain, atzerriko egonaldietako prozesuetan aplikatuko da ikasturte bakoitzean argitaratzen den "Mugikortasun egonaldien araudi orokorra".

## 11. MATRIKULAREN ORDAINKETA

### 11.1. Modalitate presentzialeko Graduetan.

Ikasturteko matrikularen zenbatekoa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Kontseilu Errektoreak ezarriko du ikasturte bakoitzaren hasieran.

Kopuru hau honela banatuko da: lehenengo pagakizuna matrikula egiterakoan + urritik ekainera bitarteko 9 kuota. Erreserba plaza ordainduta dagoen kasuetan, pagakizun horretatik gutxituko da aurretik ordaindutako zenbatekoa. Kuoten karguak, ostera, hilaren 15ean egingo dira, urriaren 15ean hasita. Ordaindutako diru kopurua ez da inolaz ere itzuliko, ez ohizko gertakariaren batengatik fakultateak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat.

Bestalde, aurreko urtetatik gainditzeke dauden ikasgaiak, kuotekin batera, kredituak ikasturte horretan duen prezioan ordainduko dira.

30 kreditu baino gutxiagotan matrikulatu diren ikasleek, berriz, lehen pagakizunaren parte proportzionala ordainduko dute ikasturte hasieran, zenbateko osoa ordaindu beharrean.

, Bakarrik Gradu Bukaerako Lana (GBL) duten ikasleei ordainketak 5 hilabetetan planifikatuko zaizkie, otsailean proiektua aurkeztu eta ikasketak bukatzeko aukera izan dezaten.

Gradu Bukaerako Lana egina daukaten eta beronen aurkezpen-defentsa egitea soilik falta duten ikasleen kasuan, GBLari dagokion matrikularen %20 ordainduko dute, baldin eta GBLa defendatzeko baldintza denak betetzen badituzte..

### 11.2. Modalitate erdi-presentzialeko Graduetan.

Sarrera kuota eta kreditu bakoitzaren prezioa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Kontseilu Errektoreak onartuko du.

Matrikula egiterakoan sarrera kuota ordainduko da.

Gradu osoa online egiteko 60 ECTS baino gutxiagotan matrikulatu diren ikasleen kasuan, sarrera kuotaren parte proportzionala ordainduko dute ikasturte hasieran, sarrera kuota osoa ordaindu beharrean. Gutxieneko sarrera kuota, osoaren %50ekoa izango da. (Arau hau ez da aplikagarria egokitze bigarren gradu/aipamen kasuan) Ikasturte horren kredituen kopuruari dagokion zenbatekoa bederatz

kuotatan banatuta ordainduko da, urritik ekainera bitartean, beti ere hilaren 15ean. Ordaindutako diru kopurua ez da inolaz ere itzuliko, ez ohizko gertakariren batengatik fakultateak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat.

Egokitzen eta 2. graduako lehenengo urtean, ikasturte horren kredituen kopuruari dagokion zenbatekoa bederatzi kuotatan banatuta ordainduko da, urritik ekainera bitartean, beti ere hilaren 15ean. 2. graduako 2. urtean berriz, sarrera kuotaz gain, sei kuota egongo dira, urritik martxora bitartean, beti ere hilaren 15ean.

2. aipamenaren kasuan, sarrera kuotaz gain, sei kuota egongo dira, urtariletik ekainera bitartean.

Egokitze eta 2. gradua ikasleen kasuan, Gradu Bukaerako Lana egina daukaten eta beronen aurkezpen-defentsa egitea soilik falta duten ikasleen kasuan, GBLari dagokion matrikularen %20 ordainduko dute, baldin eta GBLa defendatzeko baldintza denak betetzen badituzte.

Kasu guztietan (modalitate presentzialeko eta erdi-presentzialeko Graduetan), arautegian aurreikusita ez dauden gainontzeko kasuak aztertzeko ez ohiko batzorde bat eratuko da dagozkion partaideekin erabakirik egokiena hartzeko. Bestalde, ikasturtean zehar matrikula guztiz ordaindu ez bada, kasuan kasu aztertuko da egoera eta dagozkion erabakiak hartu eta jakinaraziko dira, besteak beste, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko aukera zabaldu ala ez.

## ORDAINKETA AUKERAK GRADUETAN

Ordainketarako aukera hauek eskaintzen dira:

Modalitate presentzialeko graduetan:

- Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa urriaren 15ean.
- Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa 9 kuotetan (urritik ekainera).

Modalitate erdi presentzialeko kasuetan:

- Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa urriaren 15ean.
- Gradua online, egokitze eta 2. graduako lehenengo urtea: Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa 9 kuotetan (urritik ekainera).

- 2. graduako 2. Urtea: Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa 6 kuotetan (urritik martxora).
- 2. Aipamena: Lehen ordainketa matrikula egitean + gainerakoa 6 kuotetan (urtarriletik ekainera).

## **MATRIKULA EZEZTATZEA**

Idazkaritza Akademikoari eginiko eskari-agiri bidez (ZTX016 Ikaslearen Baja eskabidea), matrikula ezeztatzea eskatu ahal izango du ikasleak, eskaera hori ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehen egin beharko da. Matrikula ezeztatzea 1.aldian matrikulatuta dagoen ikasleak eskatu ahal izango du.

Matrikula egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen ez direnean edo datuak, zein dokumentazioa faltsutu direnean, ezeztapena ofizioz egingo da.

### **Ondorioak**

Ikasleak berak matrikula ezeztatzea eskatzen duenean edo matrikula ofizioz ezeztatu denean, ikasleak Fakultate honetan matrikulatuta egoteari utzi egingo dio; beraz, ezingo zaio egin ikastetxe honekiko lotura duela egiazta lezakeen inolako agiririk.

Ezeztapen unera arte ikasleak ordainduriko matrikularen prezioa ez zaio inolaz ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden gainerako kopuruen kobrantza bertan behera utziko da.

## **IKASLEAK BORONDATEZ BAJA ESKATZEA**

Ikasleak Fakultatean baja eman nahi duenean, eskari-agiri (ZTX016 Ikaslearen Baja eskabidea) bidez jakinarazi beharko dio Idazkaritza Akademikoari.

### **Ondorioak**

Idazkaritza Akademikoak ikasleak ikasturtean burutzeko dituen deialdiak baliogabe utziko ditu eta bajaren berri helaraziko dio Administrazioari, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez diezazkion. Baja eskaera hilaren 10aren aurretik jaso ezean, hilabete horretako kuota kontutik pasako zaio ikasleari.

Ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio, inolaz ere, itzuliko ikasleari.

## **ATZERA EGITEA**



Ikasleak eskubidea dauka atzera egiteko eta kontratua ondoriorik gabe uzteko matrikula gauzatu eta hamalau egun naturaleko epean, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikulua arabera.

Horretarako, esteka honetan dagoen dokumentua beteta bidali beharko da, ikasleak sinatuta, epe horren barruan.

<https://www.mondragon.edu/documents/20182/1580578/matrikula-atzera-egitea.pdf/>

Bidali daiteke emailaz [administrazioa.huhezi@mondragon.edu](mailto:administrazioa.huhezi@mondragon.edu) helbidera edo posta arruntez Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatzara.

Lehenetsiko da inprimakia emailaz bidaltzea. Balio data Fakultateak emaila jaso duen eguna izango da. Edonola ere, paperezko euskarria erabiltzen bada, balio data korreo zigiluan agertzen dena izango da. Fakultatera ekartzen bada berriz, aurkeztu deneko eguna izango da balio data, hau da, Fakultateak jarritako sarrera zigiluan azaltzen dena.

Matrikula gauzatzean emandako kontu zenbakian egingo da itzulketa.

## 12. IKASKETETARAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

### 12.1. Ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorra

#### 12.1.1. Eusko Jaurlaritzako deialdiak:

- Unibertsitate mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka.
- Errendimendu handiko ikasleak saritzeko bikaintasun akademikoko beka.

#### 12.1.2. Hezkuntza Ministerioa:

- Beka orokorra eta mugikortasun beka.

#### 12.1.3. Beka eta diru-laguntza propioak:

- Prezio Publikoen diru laguntza (Eusko Jaurlaritza eta Mondragon Unibertsitatearen arteko hitzarmena)
- Batxilergoan ohorezko matrikula ateratzeagatik laguntza.
- Fakultatean arlo ezberdinetan bekadun aritzeko aukera.
- Curriculumaz kanpoko praktikak.

## 12.2. Fakultatean bekadun

Ikasturte hasieran, Fakultateko departamentuetan bekadun aritzeko aukera zabaltzen zaie ikasleei. Deialdia, korreo elektronikoz jakinarazten eta argitaratzen da; oinarriak administrazioan daude eskuragai.

## 12.3. Eskola Asegurua

1953ko uztailaren 17ko Legeak sortzen du (abuztuaren 18ko EBO) ikasleen onurarako gizarte-aurreikuspena bermatzeko. Helburua da ikasleei babes eta laguntza eman ahal izatea, nola nahi gabe gertatutako istripuetan zein aurreikusitako egoera txarretan. Eskola Aseguruaren aplikaziorako adin muga 28 urtekoa da. Eskola Aseguruaren ondorioetarako, ikaslearen izaerarekin zuzen zein zeharka loturiko jardueretan ikasleak jasan lezakeen edozein gorputz-kalte hartuko da istripuztat; esate baterako, kirol-jarduera, batzar, ikasketa-bidaia, praktika edo proiektu edo antzeko jardueretan, baldin eta jarduera horiek unibertsitateak antolatutakoak badira.

## 12.4. Bekabide

BEKABIDE programarekin ikasleen eta euren familien ahalbide ekonomikoetara egokitzen ditugu ordainketak.

MUn ikasteak ekarriko lituzkeen gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta, kasuan kasuko azterketa egiten dugu ikaslearen familiaren egoera ekonomikoa ikusita..., eta programaren onuradun izateko jarraitu beharreko irizpideak erabilita.

## 12.5. Bestelako finantzaketa aukerak

Mondragon Unibertsitateak eta Laboral Kutxak sinatutako hitzarmena medio, gure ikasleek aukera dute Laboral Kutxan ikasketak burutzeko maileguak lortzeko, lehentasunezko baldintzetan.

## 12.6. MUKide

MUKide Mondragon Unibertsitateko ikasle ohien elkarte da. Bertan izena ematen duten ikasleek hainbat zerbitzu jasotzen dituzte. Besteak beste, beharpenak Mondragon Unibertsitatean ikasteko. Beharpen hauek eskatu ahal izateko, ikasleak izena eman beharko du MUKiden

Azaroaren 1aren aurretik. Horrela egin ezean, ikasturte horretan ezingo da kontzeptu honegatik beharpenik egin matrikularen zenbatekoan.

### 13. ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK

HUHEZIKo Gradu Lan Taldeari dagokio Arautegi honetan agertzen ez diren gaietan esku hartzea, aipatzen direnak zabaltzea, sakontzea, zehaztapenez argitzea, eta abar. Hezkuntza Graduen Koordinatzaile taldeak eskumena du salbuespen egoeretan erabakiak hartu eta bideratzeko.

HUHEZIKo Gradu Lan Taldeak, Arautegi honetan xedatutakoaren babespean, Gradu unibertsitate-ikasketetan jarduera akademikoa normal gara dadin zainduko du eta Hezkuntza Komunitatearen asebetetzerako bidezko zat jotzen dituen hobekuntza-proposamenak egingo ditu.

Hemendik aurrera Arautegi honen aldaketak egitea HUHEZIKo Gradu Lan Taldearen eta ez beste inoren eskuduntza da, bertako kideren batek hala eskaturik.

#### 1. ERANSKINA. Lanbide Heziketako kredituak aitortzea.

**Haur Hezkuntza Gradu 1. mailan matrikulatuta dauden ikasleei aitortutako modulu eta ECTSak:**

<i>Familial</i> GM Zikloa	Ikasgaiak	Graduan Aitortutako moduluak	ECT S	Maila
	Garapen kognitiboa eta motorra	Haur Hezkuntzarako hezkuntza testuinguruak	8	1
	Garapen sozioafektiboa			
	Lantokiko prestakuntza	Practicum I	4	1
	Haur Hezkuntzako Didaktika	Ikaskuntza eta garapena errazten	10	2

<b>GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZ UAK HAUR HEZKUN- TZA</b>		hezitzaileen roletik		
	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Practicum II	6	2
	Gizarte-trebetasunak	Eskola Hedatua	6	2
	Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea			
<b>GUZTIRA</b>			<b>34</b>	

## 2. ERANSKINA. Mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen kalifikazioa.

### 2.1. Sarrera

Araudi honen helburua da irizpideak ezartzea atzerriko/helmugako unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan partehartzen duten ikasleek HUHEZIn egin gabe uzten dituzten ikasgaien ECTS kredituak ebaluatzeko eta aitortzeko.

Atzerriko egonaldi batetan parte hartzeko ordura arteko modulu guztiak gaindituta izan behar dira.

Egonaldian zehar ebaluazio irizpideak atzerriko/helmugako unibertsitatearenak izango dira, beraiek jarriko dute nota. Irizpide horiek argiak izaten dira eta kurtsoen dokumentazioan agertzen dira.

Egonaldia bukatzean noten ziurtagiria, TRANSCRIPT OF RECORDS edo LEARNING AGREEMENTaren baitan, ematen dute atzerriko/helmugako unibertsitatean. Ikaslearen erantzukizuna da dokumentu hori HUHEZIn Mugikortasun egonaldien araudi orokorrean ezarritakoaren arabera dagokionari entregatzea edo entregatuko zaiola ziurtatzea.

Atzerriko/helmugako unibertsitatean ikasgai guztiak ez badira gainditu, eta atzerriko unibertsitateak aukera ematen badiete gainditu gabeko ikasgaiak

errekuperatzeko, erakunde horretako errekuperazioaren emaitzaren zain geratuko gara, dagozkion aitortzak aplikatzeko. Atzerriko egonaldia egiten den unibertsitatean ez badira kredituak gainditzen, hurrengo ikasturtean egin beharko da matrikula HUHEZIn, gainditu gabe geratu den modulu guztian.

LEARNING AGREEMENT edo hitzarmen akademikoan adierazten diren kredituak dira HUHEZIn dagozkion lauhilebeteko kredituekin aitortuko direnak.

## **2.2. Atzerrian lortutako kalifikazioen bihurketa eta ebaluazioa**

Ikasleak atzerrian lortutako kalifikazioak (zenbakizkoak zein kualitatiboak), 1125/2003 Errege Dekretuak ezarritako kalifikazio sistemara bihurtuko dira.

## **2.3. Aitortuko diren ects kopurua zehaztea**

Ikasleek mugikortasun ekintzetan parte hartu ahal izango dute, atzerriko/helmugako unibertsitate batean seihileko bat egiteko. Helmugan ikasleek egin beharreko ekintzak jardunaldi osoak izango dira eta, ondorioz, egonaldiko irakastorduen pareko ikasketak egin beharko lirarteke (ez dira 240 ECTS seihileko baterako).

Beraz, lortutako emaitzen arabera, eta araudi honetan zehaztutako baldintzak ezarrita, HUHEZIn seihileko bakoitzeko 24 ECTSra arte aitortu ahal izango zaizkio, gainontzeko 6 ECTSak espediente akademikoan jasoko dira.

Ikasleak helmugako unibertsitatean ECTS kopuru txikiago bat gainditzen badu, HUHEZIn atzerriko/helmugako unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua osatzen duten ikasgaiak aitortuko zaizkio. Inola ere ezingo dira aitortu helmugako unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua baino handiagoa.

## **2.4. Huhezi-n aitortu beharreko ikasgaiak ebaluatzeko era**

Atzerrian egindako ikasketei dagokienez, tituluko ikasgaiak aitortzea erabakitzeke, lehenik eta behin, kontuan hartuko da ikasleak helmugako unibertsitateko ECTS guztiak gainditu dituen ala ez:

- 2.4.1.** Ikasleak ECTS guztiak gainditu baditu, tituluari aitortu daitezkeen ikasgai guztiak helmugako unibertsitatean lortutako emaitzen batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira.
- 2.4.2.** Helmugako unibertsitatean gainditu ez diren ECTSak, HUHEZIn gainditu gabekotzat joko dira ondorio guztietarako. Seihilekoko

gainerako ECTSak helmugako unibertsitatean gainditutako ikasgaien batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira. (Batez besteko nota haztatua honela kalkulatu da: ikasleak helmugako erakundean gainditu dituen kredituen batura, horietako bakoitza dagozkion kalifikazioekin biderkatuta, eta erakunde horretan egindako egonaldian gainditutako kredituen kopuru totalarekin zatituta).

## **2.5. Helmugako unibertsitatean lortutako kalifikazioen behin-behineko izaera eta behin betikoa.**

Ikasleak egonaldia egin duen unibertsitatean lortutako kalifikazioen egiaztagiri originala jaso bitartean noten bihurteta eta ebaluazioa ez da burutuko. Ezingo da mugikortasunean lortutako kalifikazioen egiaztagiririk eman, eta ez da titulua eta Tituluaren Gehigarri Europarra emateko eskaria onartuko.

## **3. Eranskina. Datu pertsonalen babeserako araudia**

- 3.1.** Gradu zein Gradu-ondoko ikasketetako modulu edo practicumean, zein ikerketa proiektuetan, argazkiak edo grabazioak egiteko beharra sortzen bada, adostasuna bermatzeko dokumentua sinatu beharko da.
- 3.2.** Moduluko, practicum edo ikerketa proiektuko arduradunak dokumentua Moodle-en ([www.moodle.mondragon.edu](http://www.moodle.mondragon.edu)) irakasleen txokoan aurkituko du (Irakasleen txokoa → LOPD-Datu pertsonalen babeserako araudia Grabazioak edo argazkiak egiteko baimen orriak).
- 3.3.** Irakasle Gunean hiru karpeta daude:
  - 3.3.1.** Adin nagusikoak grabatzeko edo/eta argazkiak ateratzeko erabili beharrekoak (HS42001A, HS42001B)
  - 3.3.2.** Adin txikikoak grabatzeko edo/eta argazkiak ateratzeko erabili beharrekoak (HS42001D, HS42001E)
  - 3.3.3.** Argazki edo grabazioen erabilera egokia bermatzeko-ikasleak (HS42001F)
  - 3.3.4.** Argazkia atera edo grabatu beharrekoa adin nagusikoa bada, lehenengo karpetan dauden dokumentuak erabiliko dira (HS42001A, HS42001B). HS42001A dokumentua modulu edo practicumaren kasuan erabiliko da eta HS42001B dokumentua ikerketa proiektuen kasuan. Aldiz, grabatuko den pertsona adin txikikoa bada, bigarren karpetan dauden dokumentuak erabiliko dira (HS42001D, HS42001E). HS42001D dokumentua modulu edo practicumaren kasuan erabiliko da eta HS42001E dokumentua ikerketa proiektuen kasuan.

- 3.3.5. Dagokion irakasle edo ikertzaileak adostasuna bermatzeko dokumentua osatu eta sinatzen duenean, grabazioa edo/eta argazkia burutuko duen ikasleari emango dio baimena lor dezan.
- 3.3.6. Hirugarren karpetan dagoen dokumentua (HS42001F) Huheziko ikasleek sinatu beharko dute, grabazio edo argazkien erabilera egokia egingo dutela ziurtatuz.
- 3.3.7. Adostasuna bermatzeko dokumentua sinatuta, ikasleek 15 eguneko epean jaso beharko dute, bestela adostasunik ematen ez dela ulertuko da eta ondorioz ezingo da argazkia edo grabazioa burutu.
- 3.3.8. Baimenak ikasleak dagokion irakasleari entregatu beharko dizkio.
- 3.3.9. Irakasleak baimenak jasotzean administrazioan entregatuko dira horien jarraipena egin ahal izateko.

#### 4. Eranskina. *Biblioteka zerbitzuko materialak erabiltzeko arautegia*

Bibliotekako materialaren erabilera Mondragon Unibertsitateko komunitateko kideei dago mugatuta.

##### 4.1. Baliabide materialak mailegatzeko prozedura

- 4.1.1. **Baliabide materialak dira: ordenagailu eramangarriak, bideokamerak, tripodeak, etab.**
- 4.1.2. Materiala erabiltzerakoan jarduera akademikoek eta ikerketa-lanek dute lehentasuna.
- 4.1.3. Erabiltzaileak aldeztatik materiala erreserbatzeko aukera dauka [web aplikazio bidez](#). Erreserba egiten duenak lehentasuna du.
- 4.1.4. Materialak maileguan hartzeko epea 24-48 ordukoa da, hortik gorako maileguetarako edota asteburuetan, jai-zubietan eta oporraldietan materiala mailegatzeko, [Bibliotekarekin harremanetan jarri](#) behar da.

##### 4.2. Dokumentuak mailegatzeko prozedura

- 4.2.1. Bibliotekak aukera zabala dauka dokumentu ezberdinak mailegatzeko (liburu, DVD...), bai Fakultatekoak zein Mondragon Unibertsitateko beste Biblioteketakoak.

- 4.2.2. Dokumentuen bilduma kontsultagarri dago [Bibliotekako bilatzailean](#).
- 4.2.3. Fakultatean ez dagoen dokumentu bat behar izanez gero, dokumentu hori eskuratzeko [Bibliotekarekin harremanetan jarri](#) behar da.
- 4.2.4. Erabiltzaile motaren arabera, materialen kopurua zein epea, [ezberdina da](#). Kasuan kasu, aukera egon daiteke epe horiek luzatzeko.

\*Ikasleek ikasketak bukatu baino lehen eta tituluaren ziurtagiria jasotzeko, maileguan dituzten material edota dokumentuak bueltatu beharko dituzte.

### 4.3. Matxuren, galeren edo lapurreten kudeaketa prozedura

Maileguko materialaren erabileran matxura, galera edota lapurreta gertatuz gero, ondorengo urratsak emango dira:

- 4.3.1. Ikasleak matxura, galera edo lapurretaren berri emango du.
- 4.3.2. Materialaren kostu erreala kalkulatu da, amortizazioa aintzat hartuta, beheko taulan adierazitako eran:

URTEAK	0	1	2	3	4	5-6
Amortizazio kostea (BEZ barne)	10%	7%	6%	%50	%3	%25

- 4.3.3. Ikasleak ordainketari aurre egin beharko dio. Horretarako epe desberdinak egongo dira, betiere ordaindu beharrekoaren arabera:

- 4.3.3.1. 0 - 100 euroko aurrekontua bada: ikasleak hilabete bateko epea izango du ordaintzeko.
- 4.3.3.2. 100 eurotik gorako aurrekontua bada: ikasleak bi hilabete eta 3 hilabete arteko epea izango du matxura ordaintzeko.



Epealdi horretan ordaintzen ez bada, unibertsitateko hainbat zerbitzu erabiltzeko aukera ukatuko zaio ikasleari (tartean materialak mailegatzeko aukera).

- 4.3.4.** Ordainketa transferentzia bidez egingo da eta ordainagiria Eskoriatzako Administrazioan edota Herreran aurkeztu beharko da.
- 4.3.5.** Ikasleak ordainketa egin ezean, kasua aztertuko da eta dagokion neurria hartuko da.

2024ko azaroaren 7ko Gradu Lan Taldean onartua.